

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Imanol Lazkano Uranga

*Azpeitia,
Gipuzkoa
(1936)*

Aurkibidea



Biografia



Azpeitiko Landeta auzoko Antzibarrena baserrian jaioa 1936an. Hamar senideko familian hazia. Eskolan, Azpeitiko maristetan ibili zen sei urtetatik zazpira. Bertsolaritza mundura gaztea zela sartu zen, hain zuzen 14 urte zituela kantatu zuen jendaurrean lehendabizikoz. 'Uztapide', 'Basarri', 'Txapel', 'Zepai' eta beste zenbait bertsolari handirekin batera ibilia. 1987an hasita, Euskal Herriko Bertsozale Elkarteko lehendakaria eta hainbat liburu idatzia.

Zintak

AZP-082

- **Proiektua:** Azpeitiko hitanoa
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Otegi, Aitziber
- **Data:** 2010-11-22
- **Iraupena:** 67 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Oruesagasti, Ainitze
- **Transkribatzailea(k):** Oruesagasti, Ainitze

Pasarteak

1. Garai bateko Landeta

- **Erref:** AZP-082/002
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:00:50. **Bukatu:** 00:01:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea

Laburpena:

Garai bateko Landeta nolako zen kontatzen du. Artasoro onak omen ziren Landetan. Errezoa eta lana ziren nekazarien arma.

2. Landeta erriberako azken ardiak

- **Erref:** AZP-082/003
- **Iraupena:** 0:00:31. **Hasi:** 00:01:40. **Bukatu:** 00:02:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserrria » Baserriko lanak » Artzaintza

Laburpena:

Landeta auzoko Antzibarrena "Artzaikoa" baserrian jaio zen. Imanolen aitona artzain ibilia zen Izarraitzen. Landeta erriberako azken ardiak Antzibarrenakoak izan omen ziren.

3. Auzoko errotak

- **Erref:** AZP-082/004
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:02:11. **Bukatu:** 00:02:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Garia
- Baserrria » Baserriko lanak » Artoa
- Baserrria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Baserrian ez zuten errotarik, baina inguruan baziren bi errota: Orandaundi eta Atxubiaga. Artoa garia baino gehiago lantzen zen.

4. Bederatzi anaia eta arreba

- **Erref:** AZP-082/005
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:02:58. **Bukatu:** 00:03:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Familia bakoitzean 10 ume izaten ziren. Bederatzi anaia eta arreba ziren Imanolen familian. Inguruko baserrietan ere familia handiak ziren. Elizako sinesmenei buruz hitz egiten du.

5. Auzolanean egindako eskola eta maristak

- **Erref:** AZP-082/006
- **Iraupena:** 0:00:52. **Hasi:** 00:03:56. **Bukatu:** 00:04:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Fraideak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Landetan bazen "eskola zaharra" esaten zioten eskola. Garai batean, mendiko ikatzak jasotzeko biltoki zahar bat auzolanean egokitu, eta eskola jarri zuten bertan. Kaleko emakume bat joan ohi zen eskolak ematera. Zazpi urtera arte ibili zen han. Zazpi urtetik 14ra bitartean, Azpeitiko maristetan ibili zen.

6. Urola erdialdeko bertsolaritzaz

- **Erref:** AZP-082/007
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:04:48. **Bukatu:** 00:07:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Azpeitia aldeko bertsolaritzaren historiari buruz hitz egiten du. Urola erdialdeko azken 100 urteetako bertsolaritzaren bilakaera du hizpide. Duela 100 urte, Azkoitia izango omen zen zonaldeko eta "seguru asko Euskal Herriko" herririk bertsolariena; "bertsolari on gehien zegoena". 'Etxeberritxo', 'Urkirolei', Atanotarrak, Aldazabal, 'Otsolarre', 'Olaberritxo', 'Bixko'... bertsolariei buruz hitz egiten du.</p>

7. Azpeitia aldeko bertsolariak

- **Erref:** AZP-082/008
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:07:49. **Bukatu:** 00:08:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Orain dela 80 urte Azkoitiko bertsolaritzaren indarrak Azpeitia aldera egin zuen. Garai hartan, Txapel eta Zepai koinatuak, Uztapide zestoarra, Basarri errezildarra, Loidisaletxe anaiak... aipatzen ditu. Txillarramendi auzokoak ziren Zepai eta Txapel, eta Joxe Lizaso ere bertan egin zen bertsolari, ama bertakoa baitzuen. Francisco Iturzaeta, Patxi Kostita, bertso-jartzailea eta Korostietako bertsolariak, Artañolatarrak... aipatzen ditu.</p>

8. Gerra aurreko bertso-giroa

- **Erref:** AZP-082/009
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:08:59. **Bukatu:** 00:10:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gerra aurrean, plazan gutxi egiten zen bertsotan. Azpeiti aldeko bertsolaritza tabernakoa zen, eta horregatik ez zegoen garai hartan emakume bertsolaririk. Emakumeak debekaturik baitzuen tabernara sartzea. Hitzarekin jolas baino, hitzarekin "borroka" egiten zuten; "azkena zein isildu, oilar gisa aritzen ziren". Horregatik, jende ikasiaren artean bertsolaritza gaizki ikusia zegoen, "mozkorren festa" esaten zioten.

9. Bertsoaren bilakaera: tabernatik antzokira

- **Erref:** AZP-082/010
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:10:26. **Bukatu:** 00:12:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>1920ko hamarkadan, Manuel Lekuona apaizak Oñatin bertsolaritzaren aldeko agerpena egin zuen. Aitzol lagun zuela, 1935eko Txapelketa antolatu zuen. Txapelketa hartako finalean parte hartu zuten, besteak beste: Basarri (txapelduna), Uztapide, Txapel, Zepai...</p>

10. 'Zepai', bertsolari "okurrentea"

- **Erref:** AZP-082/011
- **Iraupena:** 0:02:34. **Hasi:** 00:12:41. **Bukatu:** 00:15:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Zepai bertsolariari buruz hitz egin du. Tinbre oneko bertsolaria zen. Bi doinurekin aritzen omen zen soilik. Bertsotan egindako ateraldiekin plaza bereganatzen zuen. Hizketan ere bizia eta umore onekoa zen, "berezia oso".</p>

11. Santa eskeko saioak, txapela erantzekoak

- **Erref:** AZP-082/012
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:15:15. **Bukatu:** 00:18:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

<p>Imanol Lazkanoren mutikotako oroitzapenak. Landetako baserrietan bertsoa oso gertutik segitzen zen. Santa eskeko saioak aurretik iragartzen ziren: aurrez jakiten zen zein bertsolari eta zer kuadrilla izango ziren urte horretan. Bertsolariek ate ondoan egiten zuten lanari buruz hitz egiten du. Bertso-saio horiek hizketarako gai izan ohi ziren.</p>

12. Santo Tomas egunean, plaza mutu

- **Erref:** AZP-082/013
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:18:47. **Bukatu:** 00:19:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santo Tomas
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Mutil koskorra zela, Santo Tomas egunean Azpeitiko plazan izaten ziren bertso-saioak gogoratzen ditu. Bi-hiru bertso buruan hartu ohi zituen; gero, etxean kantatzeko. Saio horietan, Basarri eta Uztapide jakinekoak izaten ziren, eta hirugarrena, berriz, Txapel, Zepai edota Loidisaletxe izan ohi zen.</p></div>
<div data-bbox="302 253 423 268" data-label="Section-Header>Transkripzioa</div>
<div data-bbox="302 269 886 539" data-label="List-Group>- Santo Tomas eguneko lehen esan detan udaletxeko argazki hori... hori zeukat nik itsatsita...- Santo Tomas egunean, Azpeitin...- Azpeitiko plazan hamabiyak puntuan. Eta Azpeitiko plazan, altura hartatik plazia mutu geratzen huan hayek hasten zienin e! Entzun iten huan ondo e! Oin aiñe kotxe trafiko ez huen eoten ta... Eta ni mutil koskorra jun ta entzun ez, jan iten genizkin bertsuak. Eta pare bat hiru bat buruan ekarri're bai gero etxian kontatzeko ta...- Zeintzuk dauzkazu goguan e...- Baxerri, Uztapide... jakiñekuak.- Bai.- Ta geo, izeten hittuan beste hirukote hortatik batzuten bat... batek faillatzen bestiak... Txapel, Zepai eta Loidisaletxe, urte morduan. Neretzako haiyek hituan gaiñea ez zekiat /etzekiat/ nola iteun lana koko honek... Haiyek... aurpegitan'e billatzen nitxoan nik haiyei beste jende arrunta ez zun /etzun/ irudi berezi bat, hola... bersotako berezi indako personak bezela. Neretzako haiek hituan jainkok.</div>
<div data-bbox="290 571 481 587" data-label="Section-Header>13. Bertso ibilerak</div>
<div data-bbox="328 601 763 648" data-label="List-Group>• Erref: AZP-082/014• Iraupena: 0:03:39. Hasi: 00:19:56. Bukatu: 00:23:35• Multimedia: bideoa online ikusgai</div>
<div data-bbox="290 660 364 675" data-label="Section-Header>Gaia(k):</div>
<div data-bbox="328 687 570 701" data-label="List-Group>• Aisia » Kultura » Bertsolaritza</div>
<div data-bbox="290 714 392 728" data-label="Section-Header>Laburpena:</div>
<div data-bbox="290 729 881 775" data-label="Text><p>Belaunaldi arteko zubi-lanaz hitz egiten du. Berak miresten zituen bertsolariekin abestu izanaz, bertsolarien jarrera eta lanaz eta entzulearekin konektatzeaz aritzen da.</p></div>
<div data-bbox="290 799 499 815" data-label="Section-Header>14. Bertsolari izatea</div>
<div data-bbox="328 828 763 876" data-label="List-Group>• Erref: AZP-082/015• Iraupena: 0:01:05. Hasi: 00:23:35. Bukatu: 00:24:40• Multimedia: bideoa online ikusgai</div>
<div data-bbox="290 887 364 902" data-label="Section-Header>Gaia(k):</div>
<div data-bbox="328 913 570 928" data-label="List-Group>• Aisia » Kultura » Bertsolaritza</div>

Laburpena:

Bertsolari izateaz eta sinisteaz hitz egiten du.

15. Oñatin, 10 bat saio urtean

- **Erref:** AZP-082/016
- **Iraupena:** 0:00:39. **Hasi:** 00:24:40. **Bukatu:** 00:25:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Euskara eta politika
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Plaza asko egin izan dituen garaian, ikastolen inguruan antolatzen ziren saioetan eta, Oñatin saio ugari izaten zituen. Urtean, 10 bat saio izaten zituen han. Oñatiarrak esker onekoak direla dio.</p>

16. Bertsotarako gogo-aldatea

- **Erref:** AZP-082/017
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:25:19. **Bukatu:** 00:27:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsotan egin aurreko gogo-aldateaz aritzen da. Saio batera joateko deitzen dutenean, gustura hartzen da abisua, baina garaia iritsitakoan, agian, ez da gogorik izaten edota alderantziz.

17. Norbere buruaren epaile

- **Erref:** AZP-082/018
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:27:11. **Bukatu:** 00:29:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Zaila da bertsoa bukatu gabe geratzea. Ezer asko esan gabe bada ere, bertsoak bukatu egin ohi direla dio. Saio baten aurrean, bertsolaria ez omen da bere burua epaitzeko egokiena, norberak sufritu duenaren arabera egiten baitu lanaren neurketa.

18. Bertsolari azpeitiarrek puntutan fama

- **Erref:** AZP-082/020
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:31:07. **Bukatu:** 00:34:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsolari azpeitiarrek puntutan izan dute fama. Puntutan aritzeari buruz hitz egiten du.

19. Bertsokerak

- **Erref:** AZP-082/021
- **Iraupena:** 0:02:19. **Hasi:** 00:34:37. **Bukatu:** 00:36:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsokera ezberdinei buruz hitz egiten du. Batera aritzen diren bertsolariek antzeko errima eta hizkuntza edukitzea garrantzitsua dela dio.

20. Bertsotarako euskara

- **Erref:** AZP-082/022
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:36:56. **Bukatu:** 00:39:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsotan egiteko erabili izan duen euskara du hizpide. Euskara batua sortu aurretik, bertsolaritzak euskara batu bat bazuela dio. Elizak euskara lantzeko garaian izan duen eragina azpimarratzen du.

21. Bertsolaria, esponja bezala

- **Erref:** AZP-082/023
- **Iraupena:** 0:02:01. **Hasi:** 00:39:14. **Bukatu:** 00:41:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsolaria esponja edo belakia bezala da; entzuten eta ikusten duen dena bere artxiborako jasotzen du. Hizkuntza da bertsolarien lehengaia, eta hori landu egin behar da.

22. San Agustinpean erositako bertsopaperak

- **Erref:** AZP-082/024
- **Iraupena:** 0:01:23. **Hasi:** 00:41:15. **Bukatu:** 00:42:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Bertsopaperak. Igandetan, meza ondorenean, Azpeitiko San Agustinpean bertsoak kantatu ondoren, bertsopaperak saltzen zituzten. Imanolek bertsopaperak erosi edota bertsoren bat buruan hartu ohi zuen.</p>

23. Azkenengo bertsopaperen salmenta

- **Erref:** AZP-082/025
- **Iraupena:** 0:00:58. **Hasi:** 00:42:38. **Bukatu:** 00:43:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Azkenengo bertsopaperak, duela 50 urte inguru salduko ziren kalean. Aizarnako neska bati jarritako bertsoak ziren. Gero etorri ziren lehiaketarako bertsopaperak.</p>

24. Bertsoa, baserritik kalera I

- **Erref:** AZP-082/026
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:43:36. **Bukatu:** 00:47:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Errepresio garaiko bertsolaritzaz hitz egiten du. 60. hamarkadan bertsolaritzak lan garrantzitsua egin zuen. Protesta giroan, bertsolaritzak bere bidea egin, eta baserri girotik kalerako saltoa eman zen. Azpillaga, Lopategi, Joxe Agirre eta Lizaso, Igartzabal, Lazkao Txiki eta Gorrotxategi bertsolariak aipatzen ditu.</p>

25. Bertsoa, baserritik kalera II

- **Erref:** AZP-082/027
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:47:23. **Bukatu:** 00:49:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Bertso eskolen sorreraz hitz egiten du. Patxi Goikolea, Joanito Dorronsoro... aipatzen ditu. Bertso-eskolak, bertsolaritzarentzako bigarren bultzada izan ziren. Xabier Amurizaren 'Hiztegi errimatua'k jendea bertsotan egitera gonbidatzen zuen.</p>

26. Bertsolarien kolektiboa

- **Erref:** AZP-082/028
- **Iraupena:** 0:04:08. **Hasi:** 00:49:06. **Bukatu:** 00:53:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsolarien arteko harremanaz hitz egiten du. Elkarren artean ondo eramateko beharra du hizpide.

27. Bertsozale elkartearen sorrera

- **Erref:** AZP-082/030
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:53:35. **Bukatu:** 00:55:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

Bertsozale elkartearen sorreraz hitz egiten du. 1986ko bertso txapelketaz hitz egiten du.

28. Hika eta zuka

- **Erref:** AZP-082/031
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:55:18. **Bukatu:** 00:56:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Senideek elkarrekin hika hitz egin izan dute, eta gurasoek seme-alabei ere bai. Seme-alabek gurasoei eta senar-emazteak elkarren artean, berriz, zuka. Imanolen gurasoek ezkondu ziren arte, elkarri hika egiten omen zioten.

29. Errezilen, gurasoei eta aitona-amonei "berori"

- **Erref:** AZP-082/032
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:56:38. **Bukatu:** 00:58:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Errezilen, "berori" esaten zieten gurasoei eta aitona-amonei . Apaizari ere berorika egin behar izaten zitzaion. Apaizari hika egiten zion mutil baten pasadizoa kontatzen du.</p>

30. Arreba eta auzoko neskei hika

- **Erref:** AZP-082/033
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:58:02. **Bukatu:** 00:58:57
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Etxeko arrebei eta auzoko neskei hika hitz egiten zien. Behin herritik aterata, ordea, neskekin zuka egin ohi zuen. Gaur egungo kontuak aipatzen ditu: emazteak alabei hika egin izan die, eta Imanolek, berriz, zuka.

31. Apaizari eta medikuari "berori"

- **Erref:** AZP-082/035
- **Iraupena:** 0:01:13. **Hasi:** 00:59:20. **Bukatu:** 01:00:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika

Laburpena:

Apaizari eta medikuari "berori" esan behar izaten zitzaien.

32. Klean, euskara "narratsagoa"

- **Erref:** AZP-082/036
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 01:00:33. **Bukatu:** 01:01:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Landetatik gora eta Landetatik behera euskara ezberdin hitz egiten zen. Landeta zen muga. Kalekoan, beti egin izan da euskara "narratsagoa". Kaleko hizkeraz hitz egiten du.

33. Matxinbenta eta Urrestillako euskara

- **Erref:** AZP-082/037
- **Iraupena:** 0:00:41. **Hasi:** 01:01:27. **Bukatu:** 01:02:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Matxinbenta, Nuarbe, Urrestilla eta Azpeitiko euskara du hizpide. Elkarren arteko diferentziak nabarmentzen ditu.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-01-13

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com